

GAIARI BURUZKO HAINBAT GALDERA IRISTEN ARI ZAIZKIGUNEZ...		
Ba al dakizu... Kutxako Hitzarmena indarrean izango dela 2014rarte baina hainbat gauza aldatuko direla 2013tik aurrera?		
	2012	2013
Urteko lanaldia	1608 ordu	1560 ordu
Goizeko lansaioak	Ekainetik irailera	Maiatzetik irailera
Oporrak	27+1	berdin
Aste Nagusian oporrak hartuz gero	opor egun bat gehiago	ezer ez
Zaindariaren jai-eguna larunbatean	izorrai	jai-egun bat gehiago
Lansaio murriztuak	14:00ak arte: Urtarrilak 5 eta abenduak 21, 24 eta 31	12:30ak arte: Abenduak 24 eta 31. Aste Nagusia edo 4 herriko
Zaindariaren 2. jai-eguna	Herriko 1 (Donostian ezik)	4 lansaio murriztuak egun batengatik alda daitezke
Librantza egunak	-	3 egun
Baja agiria aurkeztu beharrik ez den gaixotasun egunak.	3 egun	3 egun
Pixkanaka - Kaskari		
Ba al dakizu...? 12.zbk · 2013-02-13		

2013-tik aurrerako lanaldiari buruzko aldaketak.

Kutxako VII. Hitzarmenaren atarikoaren azken parrafoak 2013tik aurrera aldaketa batzu izango direla jasotzen du, Lan-Hitzarmena dela eta. Jarraian, aldatuak izango diren atalak eta, aldaketarik jaso ez arren, argibideren bat eskatzen dituztenak azaltzen dizkizuegu.

Urteko lanaldia: (BBK-ko 24.art) 1545 ordu + trebakuntzarako 15 ordu.

Goizeko lanaldia: (BBK-ko 24.art) Maiatzetik Irailera.

Oporrak: Ez dago aldaketarik. (Kutxako 19.art) 27 lan-egun, 1 gehiago ekainak 15tik irailaren 15a bitartera 15 opor-egun ez badira hartzen.

Aste Nagusian oporrak hartuz gero: Donostian lan-egiten dutenek Aste Nagusian oporrak hartuz gero, egun bat gehiago izango dute Kutxaren 17.art-ren arabera (BBK-ko 24.art-k ordezkatu).

Herriko zaindariaren jai-eguna larunbatean izanez gero: Kutxako Hitzarmenak ez dio ezer horri buruz. 2013tik aurrera, zaindariaren jai-eguna larunbatean izanez gero, librantza egun bat dagokio (BBK-ko 24.art).

Lanaldi murriztuak: 2012rarte Kutzako Hitzarmenak 14:00ak arteko 5 lanaldi murriztu jasotzen zituen: urtarrilak 5, abenduak 21, 24 eta 31 eta ostegun santua edo honen aurreko asteazkena, autonomi erkidegoan osteguna jai-eguna izanez gero. Donostian eta Aste Nagusi-dun beste zenbait herritan, 13:30ak arteko ordutegi murriztua aste osoan zehar.

2013tik aurrera (BBK-ko 24.art) lanaldi murriztuak 8:30tatik 12:30tara izango dira. Lanaldi murriztuak izango ditugu abenduak 24 eta 31ean eta beste 4 herri bakoitzeko, Aste Nagusia duten herrietan aste horrekin bat egingo dutelarik.

Herriko zaindariaren 2. jai-eguna: 2012rarte Aste Nagusia ez duten herrietan jai egiten zen egun honetan. 2013tik aurrera lanaldi murriztuko 4 egunetan bihurtu daitezke, edo bestela librantza egun batean.

Librantza-egunak: (BBK-ko 24.art) Urteko lanordu jarioaren konpentsaziorako 3 librantza-egun dagozkie ordutegi orokorra betetzen duten lankideei.

Bada nahasmenik BBK-ko 24.art-ko 3 librantza-egunen eta Kutzako Hitzarmeneko "Mediku kontrola" izeneko 56.art-rekin.

Artikulu honek zera dio: langile bat gaixo denean lehenbaitlehen eman behar dio abisua bere languneko arduradunari, telefonoz besterik ez bada, eta ondoren baja-agiria edo sendagilearekin izandako hitzorduaren egiaztagiria aurkeztu beharko du. Hau ez bada horrela egiten, 3. egunaren ondoren (bai jarraikoak direnean, baita tartekatuak izanda ere) Kutzak ez du soldata ordaintzeko obligaziorik izango.

Kutzako 56.art-a indarrean dago.